

EUSKARAREN ERABILERA LAN MUNDUAN

0. Aurrekariak

Euskara berreskuratzeko prozesuaren hedapenerako lehenengo saiakera hezkuntzan ezagutu bagenuen ere (ikastolak, euskaltegiak, eskolak, unibertsitateak...), berehala izango zuen sarbide euskarak komunikabideetan (Egunkaria, Argia, Jakin, Prentsa lokala,...), mugimendu sozialetan (herri elkarteak, EGEen Kontseilua, EKB, EHE,...), Hizkuntzalaritzan (Euskaltzaindia, UZEI,...), etab.; orain aldiz, badirudi lan munduari dagokiola lekukotza hartzea eta hori dela eta, idatzi honen bidez jakitera eman nahi litzateke, euskara lan munduan sustatzeko asmoz jarri diren ekintzen eta plangintzen berri.

“Euskararen erabilera lan munduan areagotzeko mikroplangintzak” izenburupean azken urteotan lan handia egiten ari da. Izan ere, hainbat enpresetan (Arrasateko Ikerlanen, Antzuolako Elayn, Beasaingo CAFen, eta beranduago, MCCko Zerbitzu Orokorretan eta Ederlanen) Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta ekonomikoarekin, plan pilotoak jarri ziren martxan 1996an euskararen erabilera areagotzeko. Plan hauek arrakastatsuak izan ziren, eta hori dela eta, erabilitako metodologia baliagarritzat joz, gaur egun, hainbat enpresa berezitu dabilta lan munduan euskara sustatzeko plangintzak martxan jartzen.

1996an hiru enpresa izan baziren plangintzari bizia emango ziotenak (berehala MCC eta Ederlan batzeko), gaur egun, hiru urte beranduago, eta 1999ko Apirilcan jasotako datuen arabera, 33 dira plangintza hauetan sartuak diren enpresak. Enpresa hauen %85 Gipuzkoan kokatzen da (Deba garaiko bailaran bereziki) eta %15 Bizkaian. Eta beste datu bitxi bat ematekotan, zera aipa daiteke: 33 enpresa horien %70, MCC korporazioko enpresak direla.

1.Euskararen inguruan hausnarketa

Euskararen erabilera areagotzeko planak martxan jartzera zerk bultzatu gaitu edo bultzatu behar gaitu, ordea? Hauxe da plangintzetan sartu berri garenoi burura datorkigun lehenengo galdera, zeren eta gure ama hizkuntzarekiko zorra (gizaldietako zorra) sentitzeaz gain, esplotazio kontu baten aurka saiatu behar denean, bihotz kontuak alde batera utzi eta emaitzetan oinarritutako lengoaia batetan aritu behar baitugu. Lan mundua kontutan izanik beraz, arrazoi balizko gisa kontutan hartu beharrekoak hauexek ditugula esan daiteke:

- **Euskarak irabazteke dituen esparruen artean, esparru sozioekonomikoa dugu bat.** Beste zenbait arlotan euskarak sarbidea izan du, adibidez, hezkuntzan. Izan ere, une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle gehienak euskaraz ikasten ari dira, azken urteotan irakaskuntzak izan duen aurrerakadari esker. Lan munduari dagokionez, sarritan entzuten da euskaraz eskolaratutakoei dagokiela euskara ekartzea lan mundura eta hauek era naturalean burutuko dutela euskararen normalizazioa lan munduan. Baina uste hau okerra da bere formulazioan. Sartu berriak nekez eragin baitezake, bestelako laguntzarik gabe behintzat, ohitura aldatetarik enpresa egituratu batetan, zeinetan “egiteko” eta “izateko” moduak eta formak, jadanik definituta daudenean. Gertatzen dena alderantzizkoa da, jasotako euskara maila kamustuz joango zaiola, alegia, gaztelania besterik erabiltzen ez duelako. Benetan kezkarria litzateke joera horri kontra

egiteko bitartekorik ez jartzea, euskal hiztuna erdalduntzeko gunea izateaz gain, beste arlo batzuetan egindako lan guztia zalantzan jar baitezake lan munduak. Gainera, gaurko zein ondoko gazteek ez diote funtsik ikusiko euskaraz hezi eta trebatzeari, euren lantegietan gaztelania besterik ez dela erabiltzen konturatzen diren heinean.

- Gaurdaino euskara bultzatzeko egin diren ahalegin guztiak, trebakuntzari, euskalduntze eta alfabetatze ikastaroei begira egin dira. **Trebakuntza beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa.** Plangintza hauei esker, erabilera da ziurtatu beharrezkoa.
- Mikroplangintzak abian jartzeko ez da ezinbestekoa langile guztiak euskaldunak izatea, ez eta langile erdaldunek euskara ikastera bidaltzea ere. Hori ez da koxka. **Euskal hiztunak eguneroko zereginetan euskara erabiltzen hastea da kontua**, beti ere, diseinatutako planaren ardatzetan finkatu diren lan eginkizun errazenetatik hasita eta ebpresako organu eta langileen adostasunarekin.

2.Euskararen mikroplangintzen helburua

Euskararen mikroplangintzen helburua, lantegia bere osotasunean hartuta, euskal hiztunei euskara erabiltzeko bideak jartzea da, hau da, **euskara lan edota zerbitzu hizkuntza bihurtzea**. Euskara erabiltzea lanean, bai ahoz bai idatziz, barne nahiz kanpo harremanetan, maila formal zein informalean. Hortaz, euskara ahal den guztietan, lan hizkuntza edota zerbitzu hizkuntza izatea.

Helburu hauek lortzeko, gutxieneko erizpide batzuk onartu behar dira, hala nola:

- Lortu beharreko helburuak hiru mailatan bereiztuko dira: oinarrizko maila, maila ertaina eta osotasun maila.
- Helburuak urraska lortuko dira, hau da, epe laburrean lorgarriak diren helburuak finkatuz hasi eta pixkana-pixkana helburu zailagoak ezarri.

- Euskal hiztunek hartu behar dute erantzunkizuna, hauek izango baitira plangintzaren euskarria, euskal hiztunen inplikazioa ezinbestekoa baita planak aurrera egingo badu. Euskal hiztunak lan eginkizun errazen eta ohikoenetatik hasi, eta euskara gero eta gehiago erabiltzea lortu nahi da. Honela, erabilerak berak sortzen du trebatu beharra, eta euskararen aldeko neurriek zentzua hartuko dute erabiltzeko aukera errealak sortzen diren heinean.
- Alderdi guztien artean adostutako proiektua da eta langileek euren borondatez parte hartuko dute mikroplanean.
- Informazioak berebiziko garrantzia du prozesu osoan zehar. Ezin du goitik ezarritako, ez eta plantilaren borondate hutsez abiarazitako plana izan. Enpresako partaide guztien adostasuna behar da, bakoitzak bere erantzunkizunak zeintzuk diren jakin behar duelako eta konpromisoa hartzea ezinbestekoa delako. Hori lortzeko biderik egokiena, prozesu osoan zehar informazio/komunikazio arloa zehatz-mehatz planifikatu eta lantzea da.

3. Metodologia

Plangintza guztietan bezala, euskararen erabilera areagotzeko honetan ere, modu planifikatu eta antolatu batetan lan egin beharra dago, metodo jakin bat jarraituz eta egiten den lana era egokian sistematizatuz. Hori horrela izan dadin, planak honako pausu edo faseetan oinarritzen dira:

1. Diagnostikoa: enpresaren egoeraren azterketa

Enpresaren egoera errealtatearen diagnostiko zehatza egiteko bi fase bereizi behar dira: alde batetik, enpresako datu orokorrak jasoko dira bideragarritasun azterketa egiteko, eta bestetik, plana diseinatzeko beharrezkoak diren datu zehatzak jasoko dira.

- 1.1. **Bideragarritasun azterketa:** fase honetan enpresa osoari buruzko datuak jasoko dira plana bideragarria den ala ez erabakitzeko: enpresaren jarduera orokorra eta tamaina,

organigrama, plantilaren batz besteko adina eta langile finkoen portzentaia, euskal hiztunen portzentaia, hornitzaile eta bezeroen jatorria eta ezaugarriak, euskararen ibilbidea enpresan eta euskararekiko eta mikroplangintzarekiko jarrerari buruzko azterketa egingo da. Fase honetan erabakitzen da plana abiarazteko gunerik egokienak zeintzuk diren, baldin eta enpresa guztia hartzea gehiegizkoa iruditzen bada (tamainagatik, euskal hiztunen kopuruagatik, etab.).

- 1.2 **Langileen banakako azterketa:** inkesta hau enpresako langile guztiek erantzun beharrekoa da. Inkestaren helburua, euskararen ezagutza, erabilera eta jarrerarekiko datu pertsonalizatuak biltzea da. Bideragarritasun txostenerako bilketan ez bezala, orain langile bakoitzak bere egoera eta iritziak agertzeko aukera izango du: norberaren datuak, lanpostuaren ezaugarriak, hizkuntza-ezagutza, euskararen erabilera lanean, euskara eta planarekiko jarrera...
- 1.3 **Enpresaren azterketa sailez sail:** bideragarritasuna aztertzeke egindako datu bilketa orokorraz gain, enpresaren arlo, departamendu edo sekzio bakoitzeko datuak biltzen dira, lan prozedurak, dokumentu zirkuituak, lan eginkizunak, lexiko berezitua etab. jasotzeko. Plana garatzeko beharrezkoa den informazioa bilduko da urrats honetan: arloko langileak eta bakoitzaren lanpostua, arloko lan-prozedurak, arloko dokumentuak eta dokumentu hauen zirkuituak, eta arloan erabiltzen diren informazio gune eta kanalak.

4. Planaren diseinua

Datuak jaso ondoren, datu horien analisiari ekingo zaio. Azterketa horren ondorioz identifikatu diren eginkizun, barne eta kanpo dokumentu, harreman mota eta guneak orokorretik partikularrera, errazenetik zailenera eta maiztasunaren arabera sailkatuko dira, eta horren arabera egingo da oinarrizko maila-

ren mugaketa. Plana hiruzpalau urtetarako diseinatuko da eta epe horretan lorgarriak diren helburuak definituko dira. Helburuekin batera, epeak eta bitartekoak definituko dira.

- 1.1. **Helburuak:** arestian esandako helburu orokorrak jasoko dira hemen ere, nahiz eta oraingo honetan, departamentuka finkatuko diren helburu konketuak.
- 1.2. **Bitartekoak:** bitartekoak bitan bana daitezke: alde batetik, pertsonalari eta bereziki pertsonal trebakuntzari dagozkionak, hauek dira lana garatzeko eskura jarri beharreko baliabide materialak. Bestetik, itzulpengintzarako edo eta erabilera taldeen lanaren jarraipenerako edo etab., euskara teknikari baten beharra ere izan dezake enpresak.
- 1.2.1. **Pertsonalaren trebakuntza:**

Erabilera taldeak

Plan honen oinarriarik funtsezkoena langileen parte hartzea da, motibazioa eta trebakuntza bilatzen baita saio hauen bidez. Bestela esan, enpresan euskararen erabilera areagotzeko talde eragileak dira, planaren garapenean enpresa osoaren parte hartzea ziurtatuko dutenak. Planaren diseinuan definituta geratu diren helburuak gauzatzeko, langile talde bakoitzak eurei dagozkien ekintzak identifikatu, aztertu, garatu eta kontrolatuko ditu. Erabilera taldea pertsona talde jakin eta iraunkorrak osatzen du, 8-10 langilek, eta ahal dela, laneko jarduera esparru bereko langileak biltzen ditu. Arlo bereko langileak izateak badu bere garrantzia, landuko dituzten laneko egoera eta jarduerak denentzat ezagunak izan daitezzen. Bestalde, euskaraz funtzionatuko dute taldeek, eta partaideek euskarazko gutxieneko gaitasuna izan beharko dute. Euskaraz ez dakitenak gaitasun hori erdiesten dutenean hasten dira taldeetan parte hartzen. Langileek euren borondatez parte hartzen dute erabilera taldeetan. Martxan jarri aurretik, motibazioa lana egin beharko da nolanahi ere, proiektuaren arrakastarako ezinbestekoa baita euskaldun gehienek

taldeetan parte hartzea. Laneko komunikazio egoerei dagozkien hizkuntza-aldaketa dute helburutzat saio hauek, eta hortaz, horiek identifikatu, aztertu eta aldaketa burutzeko trebatuko dira zirkulukideak. Komunikazio egoera horiek ezberdinak izango dira zirkuluen arabera, lanpostu ezberdinak edota hizkuntza premia ezberdinak dituzten langileak direlako.

Alfabetatze eta euskalduntzeko ikastaroak

Lanpostuaren arabera behar duten euskal hiztunek alfabetatze klaseak izango dituzte eta euskara ez dakiten langileek, berriz, euskalduntze klaseak: inoiz ahaztu gabe, helburua euskara lanerako tresna bihurtzea dela.

Lanpostuko laguntzak

Langileak bere lanean behar izan dezakeen laguntza emateko, norbait laguntzeko prest jartzea eta honela trebatuz joatea: egiten diren ikastaroak euskaraz izan daitezen saiatu eta euskara kontuan hartuko den pertsonal politika definitzea.

- 1.2.2. **Baliabide materialak:** baliabide bakoitza erabili behar duten langileek, baliabide hori euskaraz izateko beharra somatzen dutenean, euskaraz erabiltzeko trebatu ahala bideratzen da baliabide hori: agiri diseinuak, terminologi zerrendak, itzulpengintza, informatika ekipamendua,...

5. Planaren inplementazioa

Inplementazioa enpresarekin adostutako planararen arabera-koa izango da. Baina inplementazioari ekin aurretik, lan-munduan euskararen normalizazioari buruz "gogoeta prozesua" bideratu beharko da.

6. Planaren ebaluazioa

Bukaerako ebaluazioaz eta sei hilero jarraipen batzordeari helaraziko zaion ebaluazio txostenaz gain, aldiro-aldiro, plane-

ko proiektuen ebaluazioa egiten du hizkuntza normalizatzaileak eta plangintzaren koordinatzaileak.

7. Planaren eragileak

Planak arrakasta izan dezan, euskal hiztunek hartu behar dute planaren gidaritzza. Hala ere, plana burutu eta jarraipena egiteko, hiru figura hauek jarri behar dira lanean:

- Plangintzaren koordinatzailea: enpresak izendatutako langilea eta plangintzaren jarraipena gertutik egingo duena.
- Hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria: erabilera taldeen ardura du, horiek bideratu eta funtzionamendua ebaluatzen du. Laneko interbentzioetan laguntza ematen du.
- Jarraipen batzordea: plana ezarritako helburuen arabera betetzen ari dela kontrolatuko duen batzordea da. Batzorde horretan, planean parte hartzen duten partaide guztiek ordezkaturik egon beharko dute.

8. Kostuak

Enpresak honako kostu hauei egiten die aurre:

1. Mikroplangintza martxan jartzeko kontratatutako enpresaren zerbitzua
2. Euskaltegiek eskainitako zerbitzua
3. Enpresako langileen euskararen erabilera areagotzearen alde sartutako orduak: erabilera taldeak, euskara ikastaroak, koordinazio eta ebaluazio batzarrak, ekintzak puntualak,...
4. Planaren koordintzailearen orduak

Dena dela, dirulaguntzak ere badira. Hauen artean aipatzeak:

1. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak bideragarritasun azterketa eta diseinua garatzeko bideratzen dituen laguntzak.

2. HOBETUZ programak euskara ikastaroetarako eta erabilera taldeentzako eskaintzen duen diru laguntza.
3. MCC-ko enpresentzat, FEPItik diru partida bat bideratzen da euskararen sustapen lanetan diharduten enpresentzako.

Laguntza guztiak kontutan hartuta, enpresak kostuaren % 50 hartzen duela bere gain esan daiteke.

9.Arazo nagusiak

Euskararen erabilera areagotzeko plangintza hauek martxan jartzeko zein jarraipena egiteko, egun, koordinatze lanetan gabiltzanok aurkitzen ditugun arazo edo oztopoak tankera honetakoak dira nagusiki:

1. Zuzendaritzaren aldetiko sentiberatasun eta babes ahula.
2. Enpresen helburua produktibitatea eta konpetibitatea diren heinean, euskara sustatzearen balio soziala oso urrun gelditzen da zuzendaritzak baliarazten dituen beharren aurrean.
3. Euskara batzordeak hartzen dituen erabakiak aurrera eramateko, organu honek sarri askotan enpresaren egituran oso indar ezdeusa du. Beraz, organu horretan hartutako erabakiak, sarri askotan, ezerezean gelditzeko arriskua egoten da.
4. Zuzendaritzak koordinatzailearen gain uztea erantzunkizun guztia. Hau da, plangintzari baietza ematen zaio baina zuzendaritzaren aldetiko inplikaziorik gabe.
5. Euskara areagotzeko helburuak jartzean, hizkuntza irizpideen politika berriari sarbidea emateko arazoak; arazo politikoak, arazo funtzionalak eta arazo psikologikoak.
6. Langilegoaren artean diskriminazio sententzia hedatzea.
7. Terminologia arazoak: hiztegigintzan lan franko egin beharra, etab.

10. Amaierakoak

Plangintza hauetan murgilduta gabiltzanok badakigu, atariak pisu asko eta pisu bakoitzak etxebizitza asko dituela. Baina ataria prestatzeko epea, batz bestea, 20 urtekoa dela iruditzen zaigu. Hau da, erdarazko hezkuntza hutsa izan dutenen belaunaldiak enpresetatik atera eta berriak euskaraz sartzeko, hogei urteko epea behar dugula.

Belaunaldi berrientzako lantegiak euskaraz funtzionatzeko moduan prestatzea dugu beraz erronka. Erronka zaila eta aldapatsua. Baina oihanean ere beti dago bat, indiarra normalean, sable handi bat hartu eta sastrakak moztuz bidea egiten joaten dena, hurrengoei bidea erakutsiz eta erraztuz.

Hogei urteko lan epea ezagutuko duen atari hortan sartu direnei zorionak beraz hemendik, eta sartu ez direnei deia zabaltzen diegu, XXI. mendeko euskararen aldeko hitzarmen orok, nolanahi eta nonnahi delarik ere, merezitako oihartzuna izaten saia gaitezen.

Ana Urkiza